

# Bidaia-Ikuspentak A. Abbadiaren 1835eko Karnetean

(Travel impressions of Anton d'Abbadie's 1835 Journal)

Arkotxa - Scarcia, Aurelia\*

Université Michel de Montaigne Bordeaux III

F-33405 Talence - Cedex

\* Eusko Ikaskuntza

---

Onoko artitulan, A. d'Abbadie zientzialari gaztearen gogoetak eragin zituen gai garrantzitsuak nabarmentzen ditu A. Arkotxa-Scarcia, Britainia Handira, Irlandara eta Euskal Herrira 1835ean egindako bidaia-egunkarian idatzirik geratu bezala. Bertan aipatu zituen gai garrantzitsuenak hauek dira: denboraren igarotzea, jendea, natura eta gizakiak sorturiko ingurunea. Iraganez doan denborekiko sentibera agertzen da d'Abbadie. Bestalde, haren gogoetak aldatzen dira bidaia posta-organ, bapore-ontzian edo oinez eginez gero. Orobat, jendeak mota desberdineko aztarna utzi zuen d'Abbadierengan, ez baita bera Londresko hauteskondeetarako hautagaien erretratu idazten duenean ala Cambridgeko estropadak ikusten dituenean. Gizakiak sorturiko ingurunea aipatzean, hiriek, elizek eta monumentuek bidaierengan duten eraginaz mintzo da A. Arkotxa-Scarcia. D'Abbadierengan naturak duen eraginari dagokionez, berezi egin behar dira paisaia basa-landugabeak eta gizakiak aldaturiko lanborantza lurra edo lorategiak. Bestalde, A. Arkotxa-Scarcia nabarmendu egiten du d'Abbadiek aurrerapen teknologikoarekiko zuen interesa eta adierazten du nola 1835eko bidaia hura geroko Etiopiarako bidaia prestatzeko baliatu zen.

Giltz-Hitzak: A. Abbadia. Arkitektura. Baratzeak. Bidaia. Etiopia. Erromantizismoa. Karneta. Orientea.

En el siguiente artículo A. Arkotxa-Scarcia destaca los temas importantes que estimularon las reflexiones del joven científico A. d'Abbadie tal y como quedaron registradas en el diario de su viaje a Gran Bretaña, Irlanda, y al País Vasco en 1835. Las cuestiones importantes aludidas son el paso del tiempo, la gente, la naturaleza y el entorno creado por el hombre. d'Abbadie es sensible al paso del tiempo en el camino. Sus impresiones también varían dependiendo de si viaja en carruaje de correo, en barco a vapor o a pie. La gente también deja su impronta en d'Abbadie de distintas maneras, dependiendo de si está redactando el retrato de unos candidatos a las elecciones de Londres o si asiste a las regatas de Cambridge. Por entorno creado por el hombre, A. Arkotxa-Scarcia se refiere a cómo influyen sobre el viajero las ciudades, las iglesias y los monumentos. El impacto que tiene la naturaleza en d'Abbadie se subdivide asimismo en paisajes vírgenes y en las tierras agrícolas o jardines que han sido objeto de transformación por el hombre. A. Arkotxa-Scarcia también destaca el interés de d'Abbadie por el progreso tecnológico y relata cómo el viaje de 1835 supone un trampolín preparatorio para su posterior viaje a Etiopía.

Palabras Clave: A. d'Abbadie. Arquitectura. Jardines. Viaje. Etiopia. Romanticismo. Oriente.

Dans l'article suivant, A. Arkotxa-Scarcia traite des sujets importants qui stimulèrent les réflexions du jeune scientifique A. d'Abbadie telles qu'elles apparaissent sur le journal de son voyage en Grande Bretagne, en Irlande et au Pays Basque en 1835. Les thèmes importants en sont le temps qui passe, les gens, la nature et l'environnement créé par l'homme. D'Abbadie est sensible au temps qui passe en chemin. Ses impressions varient s'il voyage en voiture de poste, en bateau à vapeur ou à pied. L'impact des gens sur d'Abbadie se traduit différemment s'il est en train de rédiger le portrait de candidats aux élections de Londres ou s'il assiste aux régates de Cambridge. Par environnement créé par l'homme, A. Arkotxa-Scarcia se réfère à l'influence des villes, des églises et des monuments sur le voyageur. L'impact de la nature sur d'Abbadie se subdivide également en paysages vierges et en terres agricoles ou jardins qui ont été transformés par l'homme. A. Arkotxa-Scarcia souligne aussi l'intérêt de d'Abbadie pour le progrès technologique et relate la façon dont son voyage de 1835 suppose un tremplin à son voyage postérieur en Ethiopie.

Mots Clés: A. Abbadie. Architecture. Ethiopie. Jardins. Voyage. Orient. Romantisme.

Anton Abbadiaren 1835eko karnetean bi gune badaude, edo hobekiago erran, bi karnet elgarretaratuak: urtarrilaren 1etik martxoaren 21a arte Britania Handian egiten duen bidaia eta gero martxoa/apiriletik urtearen ondarra arte den garaia<sup>1</sup>. Lehendabiziko zatia da luzeena<sup>2</sup> eta xehetasun gehienak dituena, zati hori da ere koherentzia handiena duena osoki Britania Handian gertatzen baita. Bigarren zatia puska ezberdinez egina da: Parise, berriz bidaia labur bat Ingalaterran, Biarno, Euskalherria, Euskalherria Biarno e.a.

Bigarren gune horretan, Ingalaterran izan den garaiaz kanpo, ez dezakegu erran leku ezezagunetan ainitz kurri dabilala baina ikusten dugu entrenamenduak gogortzen ari direla eta, dela Biarnon, dela Euskalherrian, pentsamendua gero eta gehiago Orientean egin gogo duen bidaiari duela.

Egia erran, Orienteko ametsa puntuz-puntu urte hastapenetik urte bukaeraraino aurkitzen dugu, karnet guztian.

Karnetari esker bidaiariak oroitza finkatzen du baina horretarako diziplina bat segitu behar da: bidaiatzen den ber idatzi. Eta ez da beti errex ... Anton Abbadiarendako ere ez martxoaren lehenean hona zer dion:

*“C’est un phénomène assez singulier que cet empressement de certains voyageurs à courir le monde afin d’en pouvoir causer à leur retour chez eux, tandis qu’en même temps à mesure qu’ils cheminent, ils exhibent la plus singulière insouciance à narrer leurs impressions, remarques & souvenirs. Tel est mon cas depuis que j’ai quitté Dublin, je n’ai pas ajouté un mot à mon journal. Aujourd’hui je suis en proie aux ennuis d’un dimanche passé en Ecosse et autant pour tromper ce temps qui me vexe que pour satisfaire au cri de ma conscience je reprends ma plume, je rappelle mes souvenirs.”*  
(Abbadia/Urkiu 1997, I, 81)

Eta ere:

*“Il est toujours malheureux pour le voyageur qui prend des notes de ne pas les avoir écrites sur le lieu. Cette mauvaise habitude lui fait perdre beaucoup de détails précieux.”* (op.cit., 94)

## I. BIDAIAREN DENBORAK

### I.1. Postako karrosak

Antonek bere garaiko ibilgailu lasterrenak hartzen ditu, postako-karrosa, adibidez. Baina den posta-karrosa arinena ere aro txarrak geldiarazten du... Gertakari horri esker Antonek biziz betea den pasarte hau eskaintzen digu:

*“A 7 heures du soir je montai sur la malle de Glasgow à Londres: la neige était épaisse, peu gelée mais en large flocons. A dix heures j’en avais trois pouces autour de moi en guise de fauteuil: mon chapeau en avait 0m.05 qui étaient gelés et formaient masse. J’entrai alors dans l’intérieur & je m’endormis à 4h. du matin, quoique avec six*

---

1. Bi ibilaldiei dagokionez, ikus A. Arkotxa-Scarcia, "Anton Abbadiaren 1835eko ibilaldiak", in A. Abbadia: *Pensées études et voyages*, Ed. Patri Urkiu, 1997.

2. Lehendabiziko ibilaldiak hiru hilabete irauten du eta berrogei ta hamabi orrialde egiten, bigarrenak, aldiz, hogeitamasei orrialde bederatzi hilabeterendako, (ik. Abbadie/Urkiu, 1997).

*chevaux nous avons fait seulement 5 milles à l'heure: nous étions alors au village dit The Bruff: le vent soufflant avec force dans une rue étroite tortueuse et inclinée y avait accumulé des masses de neige jusqu'à l'épaisseur de 1m.5. Nous descendîmes jusqu'à mi-jambe dans la neige même en choisissant les passages les moins obstrués et nous attendîmes jusqu'à 8h. La malle de retour était arrêtée à un 1/2 mille: nous y allâmes avec chevaux et bagages, nous la tournâmes avec beaucoup de peine & attelés de six chevaux nous arrivâmes à Wertherby, d'où je gagnai York." (op.cit. 95)*

Ohartzekoa da nola beti ahal duen xehetasun tekniko (hemen elurraren barnatasuna, karrosaren martxa, tenorearen xuxentasuna) gehienekin egiten duen deskribapena.

Abbadiaren izpiritu zientifikoai nonahi agertzen da, ondoko pasarte honetan bezala:

*"La malle de Manchester où je me trouvais était pleine de bagages, 4 voyageurs dedans et 4 dehors entre le garde et le cocher ne l'empêchait pas de courir 15 mille à l'heure ou 24 265, 5 mètres = 6 lieues de poste. Pour cela les chevaux allaient au petit galop. La route était mouillée & peu boueuse: (...) on était 4 à 5 minutes à changer les chevaux. Le cocher pour se rafraîchir prenait des verres de Xérès." (op.cit., 60)*

Gauza berdina erran genezake posta-zaldi batek, lasterka, egin dezakeen balentria zifra zehatzez ematen duelarik:

*"Mr Leve de Nays (...) m'assure qu'un cheval gris des Hautes Pyrénées (...) fait 20 lieues de poste soit 80 000 m. en trois heures en trois heures et vingt huit minutes sans débrider, manger ni s'arrêter. Il est parti de Pau, allé à Tarbes & revenu." (op.cit. 120)*

## I.2. Baporezko untziak

Bertze ibilgailu lasterra: bapore-untzia edo *pyroscaphe*- a. Hor ere gure bizietarik desagertuak diren jestuak dakuskigu, ikatzaren beharrez portura doan untzia, adibidez:

*"Un bateau à vapeur n'est guère agréable par un frais temps du Norest et sur une mer courroucée: j'allai dormir. On m'a dit que nous passâmes si loin de la Chaussée des Géants qu'on pouvait à peine la distinguer. A 9h. du soir nous entrâmes dans le port de Cambelton pour prendre du charbon: c'est là que je vis l'Ecosse sous un ciel étoilé, la terre enveloppée de ténèbres, des matelots suspendus aux haubans de chaque navire tenant des lanternes pour éclairer notre route et prêtant à travers des vitres rouges et blancs (sic) tout juste assez de lumière pour nous faire apercevoir que ces eaux noires qui nous berçaient avaient encore la transparence de l'Océan." (op.cit., 82)*

Greenock-en, Londres-Inverness egiten duen bapore-untziaren ahalak ongi begiztatuak eta kalkulatuak ditu:

*"Greenock (...)est une ville de 18 000 âmes et a plusieurs docks où je vis entr'autres un bateau à vapeur qui doit naviguer entre Londres & Inverness & dont le tonnage se montera à 1500: je crois qu'il y a là de l'exagération mais ce pyroscaphe est très vaste. L'entrepont où se placera la machine a 20 pieds de profondeur & (...)" (op.cit., 83)*

Portu beretik hartzen duten bertze untziaren ahalak ikusiak dituen bezala:

*"Il (Greenock) paraît très bien à mesure qu'on vogue à l'Est en la quittant ce que nous fîmes sur un petit bateau à vapeur dont le tirage était de 4 1/2 feet, un plus fort tirage empêche la navigation à basse marée au-dessus de Greenock." (op.cit., 84)*

Baporezko untziak gustatzen zaizkio ibilgailu laster eta arruntak baitira, bereziki Londredera heltzeko:

*“J’arrivai dans Londres le jour de l’an en remontant un fleuve qui disparaissait sous une forêt de mâts”* (op.cit., 49)

Halere, gehitu behar da britaniar aristokrata eta burges handi guztiei bezala arras gustatzen zaizkiola *yacht* deitu belaontzi ederrak-ak<sup>3</sup> (Southampton-etik hurbil daudenen deskribapen xeheak egiten ditu) eta *regattak*<sup>4</sup> edo estropadak (ikus beherago Cambridge-ko arraunlarien deskribapena). Dirudienez, Aturrin entrenatu izan da bera:

*“Course sur l’Adour: le vent de l’Est 4 rames poussées par 3 hommes faisant environ trois milles à l’heure.”* (op.cit. 130)

### I.3. Oinez eta lasterka

Halere, karnetaren neurkada, urratsa, hatsarena da, oinez kanpainan dabilarena. Horregatik dira hain funtsezkoak eguraldiari buruz gehitzen dituen xehetasunak:

*“Parti de Bayonne à pied j’arrivai au château de Garro près de Mendionde après cinq heures de marche: il y avait au commencement à deux reprises des bourrasques de pluie.”* (op. cit. 122)

*“Partant d’Audaux au pas de promenade par un temps fort chaud.”* (op.cit. 120)

*“Parti de la place de Biarrits le soir par un vent de mer frais, je suis arrivé en 2 1/2 heures à St Jean de luz.”* (op.cit. 120)

Eta ere hirietan, atseginez kurri dabilala Edimbourg-eko karrika argituetan:

*“(…) par là un étranger n’ a pas à chercher le bout de la rue.”* (op.cit. 86)

*“Les rues sont larges à beaux trottoirs et<sup>5</sup> général(ement) pavées en grosses pierres”* (op.cit. 87)

Batzutan urratsa bizitzen da:

*“(…) à un fort pas de marche je portais un paquet fort incommode à Méhari(n) je marchai beaucoup. Deux heures de plus m’avaient amené de Bayonne à Audaux en passant par Hasparren. Je regarde cette course comme fort belle.”* (op.cit., 126)

Ordea, ez dabila bakarrik oinez. Aipatzekoak dira Biarnon, Euskalherriko itsas-bazterrean, Cowes-eko portuan bezala (*“J’ai couru aujourd’hui sur le port de Cowes près Southampton cherchant à voir des yachts”*)<sup>6</sup> egiten dituen lasterrak:

*“De Bonloq à Hasparren 30 m, courant souvent surtout dans les descentes: et de même après avoir déjeuné au chocolat (une heure) 65 m de Hasparren au bac des eaux*

---

3. Ikus in op.cit. 114/115 or.

4. *Regatta*, Veneziar hizkuntzatik datorren italiar hitza. *Regatta*-k ziren deituak XVII. mendean Venezian egiten ziren estropadak.

5. Ikus 1845eko karnetaren edizioa k (Ed. Urkizu 1997) ezartzen duena: “*en général(ement)*”, argi da gaizki transkribitua dela, eskuiskribu orijinalak “*et général(ement)*” baitio.

6. In op.cit. 113. or.

*de Cambo: n'abrégeant jamais mais passant par la grande route. Cette course s'acheva à midi par un temps chaud.*" (op. cit. 125)

*"Parti de Cambo à 8h 1/2 j'arrivai en 1h à Hasparren où je pris le godaria. De là à Méharin 3h. 3h de repos. Je repartis à 6h. A 7 h j'étais au 1er ruisseau (...) le chemin, l'obscurité, l'eau et la boue me forçait (sic) à ralentir le pas: j'étais à 8h à St Palais. De là par la grande route à Audaux où j'arrivai à minuit"* (op.cit., 126)

## II. JENDEAK

Abbadie-k Londres-eko hautezkundeetaz egiten digun deskribapena ingeles "indigene"-n ohidura bitxietan koka genezake. Argi da pertsonaien jestu eta ekintzak artoski bildu eta azpimarratuak direla, zatiak karikaturation itxura ahal bezenbat har dezan, gertakariari doakion ingeles terminologiak lekukotasunari oraino kolore gehiago ematen diola:

*"(...) nous arrivâmes à 10 heures dans la chambre du Comité de M. Hawes il n'y avait ni bière ni autre boisson, mais un bon feu et 6 à 7 membres assez désœuvrés. Brunel arriva et nous donna des noeuds aux couleurs de Hawes, bleu et orange. Nous allâmes bientôt au long-room, vaste salle de danse à deux cheminées où après une heure d'attente M. Hawes entra et fut reçu chapeau bas avec des hurra. Le chairman de son comité après son petit discours monta aussi sur une chaise et demanda trois cheers pour la réforme: on les donna et nous sortîmes en corps pour aller aux hustings où Hawes Thompson et leurs proposers & seconds parlèrent assez longtemps. (...) Il y eut peu de combats parmi la foule, où (on) se bouscula un peu, on enfonça un chapeau, on lança sur nous, çà et là le sac poudreux d'un ramoneur et l'on brisa plusieurs affiches. Les deux candidats réformistes montèrent dans leurs voitures traînées par 4 chevaux harnachés de rubans bleus sur leurs têtes. (...)*

*Hier 6 janvier à Covent Garden nous vîmes du haut d'une charrette Col. Evans et Sir Burdett sur le hustings ainsi que Sir Th. Cochrane qui ne put parvenir à dire mot les trognons de choux venant le couper à tout instant quoiqu'il tint son chapeau et l'empocha avec des gestes de remerciement. Sir F. Burdett reçut un compliment du même genre sur le bout de son nez rouge et un de ses amis sur l'oeil sévèrement accosté par une pomme de terre."* (op.cit. 54/55)

Lekukoen ohiduren deskribapenean ezar genezake ere Cambridge-ko unibertsitateko ikasleen estropada:

*"Courant sur la rive de toutes mes forces je ne pouvais les suivre qu'un instant. Il est vrai que le sentier de la rive était obstrué de piétons et de boue (...). On tira trois coups de pistolet à 3' d'intervalle et l'on partit. Pour vaincre son compétiteur qui précède il fait faire toucher par la proue suivante la poupe précédente. Le 1er bateau était monté de jeunes gens forts mais un peu efflanqués (...). Le 2e bateau était celui du Reading Club ou club des travailleurs en grec et mathématiques (...). Les timoniers avaient toujours soin de reculer subitement la partie supérieure du corps et chaque fois que les rames étaient portées en arrière pour recommencer le coup qui était long et donné par les reins & l'avant-bras, les avirons de retour étaient retournés (feathered) tout près de la surface. Comme ils allaient contre le courant je les suivais bien faisant une petite course de 10 milles à l'heure ou environ une lieue de poste par quart d'heure. Comme les readers s'approchaient d'instant en instant, le foule les suivait sur les bords well pulled, that's right (...).*

*Tous les rameurs avaient des souliers, une chemise souvent en flanelle, des pantalons sans bretelles, la tête nue, la couleur des chemises et des rames ainsi que les emblèmes peints de chaque côté de la poupe, distinguaient les clubs. Le courant était de une mille contr'eux ainsi ils eussent fait en eau tranquille environ 11 milles, 17 800 m. à l'heure mais il est très difficile de faire plus de 2 milles ainsi. (...)* (op.cit., 100)

Han hemenka, aurki dezakegu ere pertsona baten potreta, Quakeresa eta haren haurra-rena, adibidez. Sobera sendimendu onez betea eta konbentzionala den margoa (ama eta haurraren "tableau de genre "-an kokatzen dena):

*"Elle causa du ton lent des Quakers me tutoya avec beaucoup de grâce & me dit qu'il y avait des amis en France près de Lyon, je la tutoyai en retour. Je demandai à son enfant (2 ans à peine) quel était son nom: la petite me tourna le dos quoiqu'assise sur les genoux de sa mère (...). Je me levai. Mme me donna sa main que je serrai & vis en même temps à travers son simple bonnet de mousseline & ses cheveux plats plus simples encore une tête pleine de religion persévérance & modestie. (...) je me retournai pour la saluer mais elle ne me voyait plus: debout, son enfant dans ses bras, elle la regardait avec des yeux où la tendresse d'une mère effaçait le stoïcisme de la Quakeresse: touchant tableau d'amour et de simplicité."* (op.cit. 63)

Karnetan aipatzen dizkigu ere bidaian kurutzatzen dituen jendeak: ingeles soldadoa, eskoziar moduan *plaid* eta *tartan*-arekin bezitutuak diren gizonak, bapore-untzietako marine-lak, Kentucky-ko apezpiku katolikoa, sarjentu bat, presondegietako langile eta presoak, Birmingham-eko langileen bizi latza ere:

*"Dans les manufactures d'aiguilles près de Birmingham tous les ouvriers meurent vite de la consommation ou phtisie tuberculaire, ce qui fait qu'ils gagnent environ £3 par semaine, ils dédaignent toute précaution sanitaire parce cela ferait diminuer les gages, et ils voient leurs camarades travailler jusqu'à ce qu'ils soient trop faibles pour continuer. (op.cit., 59)*

Langileen egoera sozial latzak iduri du Abbadie hunkitzen duela baina Parsons-ek zini-koki erraten diolarik haragi ainitz jaten dutela eta osasun azkarrekoak direla, haren errana batere izpiritu kritikorik erakutsi gabe errepikatzen du!:

*"Mr. Parsons croit que les ouvriers des manufactures de Birmingham ont beaucoup de force musculaire et de santé: ils mangent de la viande en grande quantité."* (op.cit., 59)

Urruntasun hori are gehiago sumatzen da Euskalherriko biztanleen ausentzian. Gehienetan agertzen diren itxurak etxetierrenak dira, aipamen lakoniko baten edo izen baten soin u bakarrean bizi direnak:

*"Peio (Garmendia) es le nom du fermier qui paie en arpent: il est pauvre et à beaucoup d'enfants.*

*Balardé est le nom de l'autre métayer.*

*(...) Pedro Garmendia, dit Pello, paie par an 120 fr."* (op.cit., 119)

Ikustekoa ere haren hostasun eta urrikaltasun falta Mme Dunn-en kasuaz mintzo delarik:

*"Il croit qu'il faut montrer de la résolution avec Mme Dunn, menacer de lui file a bill in chancery & par là lui faire dépenser beaucoup et poursuivre le paiement sur les biens de feu son mari. La fille de cette femme aura £ 4000 et son fils \$ 800 de rente (...).*

*Mr Butler croit qu'il faut un procès avant Mr Chaigneau pour faire payer Mme Dunn. Je devrai lui dire moi-même d'abord et ensuite avec mon avoué, le contenu du n° 144 & ajouter que je sais où et quoi elle possède du chef de son mari du chef de Mr Darby. Dire que je poursuivrai mes droits sur son fils & sur sa fille (...)* (op.cit., 78/79)

Bertzaldi batzutan herriko bizia suma daiteke baina deskribapenik ez; pilotariak, adibidez, ikusten ditu,

*"Parti de la place de Biarrits le soir par un vent de mer frais, je suis arrivé en 2 1/2 heures à St Jean de Luz prenant le chemin de l'Eglise & débouchant ainsi sur la grande route bien avant Bidart où je me suis arrêté quelque temps à voir jouer à la paume"*<sup>7</sup> (op.cit. 120)

baina ez ditu deskribatzen.

Argi da ez duela batere Cambridge-ko estropalariendako duen interesa erakusten: ez dizkigu ez gizonen potretak, ez jantziak, ez kirolaren berezitasunak aipatzen<sup>8</sup>.

### III. INGURUGIROAK

#### III. 1. Hiriak

Giro hiritarren aipamenak Britania Handiari lotuak dira. Glasgow, Birmingham, beren auzo industrializatuekin agertzen zaizkigu:

*"Glasgow se révèle d'abord par d'énormes cheminées de manufactures éparpillées dans la campagne, rondes, hautes & raides."* (op.cit. 83)

*"De Birmingham à Wolverhampton l'espace de 14 milles tout le pays est plein de mines de charbon avec des machines pour en extraire le contenu quelquefois jusqu'à la profondeur de 750 feet. Les feux de cheminées des mines et forges vues à la fois dans le brouillard de la fumée & les ténèbres de la nuit formaient un beau spectacle, comme autant de petits volcans en éruptions. En plusieurs endroits l'on brûlait la houille pour en extraire du coke et au lieu de torches à l'orifice des puits, des flammes."* (op.cit., 60)

Ez bila1835eko karnetan Baionako deskribapenik. Halere, Southampton-eko karrikak aipatzen dituelarik Hondarribikoei buruzko hitz murrizt hauk:

*"(...) L'effet général sans avoir la suavité des fenêtres de Fontarrabie (...)"* (op.cit., 115)

7. Nik dut azpimarratzen.

8. Konparaketa baten egiteko ikus dezagun E. de Jouy-k, 1817-an pilotari bost orrialde eskaintzen dizkiola J. Haritschelhar-ek gogoarazten digun bezala:

*"Cinq pages sont consacrées à la pelote, avec ses deux variétés: le rabot (sic) et la longue. Les descriptions sont intéressantes et ont valeur de témoignage pour l'histoire de la pelote, le rabot se joue contre un mur avec une balle dure, jeu indirect par nature, qui semble d'introduction récente, et la longue, jeu antique et noble par excellence, opposant des joueurs qui se font face. La description, précise, fait étalage du très nombreux public, des paris fabuleux, des juges destinés à juger les coups litigieux, des joueurs, de leur costume, le même pour tous, des qualités physiques inhérentes aux baques."* (J. Haritschelhar "Le Pays Basque en 1817 par Etienne de Jouy. . .", in *Bulletin du Musée Basque* n° 139, 1995, p. 10/11.

Pariseri buruzko aipamen zuzenik ere ez daukagu, bakarrik Glasgow-n dagolarik egiten duen ohar hau:

*“En se promenant sur le quai de Glasgow on est frappé d’une certaine ressemblance avec Paris. Son grand lit un parc bien pauvre d’arbres et s’étendant jusqu’à la rivière.”* (op.cit., 85)

Ikusten da Haussman-en<sup>9</sup> aitzinekoa den Parise hau ez duela batere miresten ez, hasteko, Edimbourg miresten duen bezala:

*“(…) la vieille ville à droite grimpée sur une colline ayant jusqu’à douze étages dans ses maisons, la rue des Princes devant & la nouvelle ville à gauche, tout cela forme un ensemble dont je n’ai jamais vu l’idée. Probablement je ne verrai jamais rien de pareil.”* (op.cit., 87)

Eskeziako hiriburuaren modernitatea, haren arkitektura, gorapatzen ditu, “hiri berria”, karriken edertasuna, espaloien zabaltasuna, galtzadaren berezitasuna, plaza eta square-n ugaritasuna:

*“Les rues sont larges à beaux trottoirs, en général pavées en grosses pierres. Il y a des places comme en France et des squares comme en Angleterre. (...) Les deux lacs entre la vieille et la nouvelle ville ont été asséchés & convertis en jardins.”* (op.cit., 87)

Edimbourg-eko gaztelutik duen ikuspegiak loriatzen du eta hiriaz pintura batez bezala mintzo da:

*“De ses bastions on jouit d’une vue fort rare. Les collines, la cité, la ville de Leitts, l’eau douce & la mer. Il n’y manque que des montagnes & peut-être quelques bouquets d’arbres sur le premier plan.”* (op.cit., 88)

Gazteluaz, berriz: *“le château d’Edimbourg est bien placé mais n’a pas de beautés en lui-même.”* (op.cit., 88).

Pentsa genezake kondairaz beteak diren oroitarriek ez dutela hunkitzen. Arras bide okerean gintezke, ordea, ondoko lerroetan ikusiko dugun bezala, karnetean ainitz baitira oroitarrei eskainiak diren zatiak.

---

9. Anton Abbadia Louis Philippe-ren erresumaren pean (1830-1848) bizi zen. Pariseko erdi eta ekialdean langileria izigarriko egoera larrian da garai horretan. Miseria bertzerik ez da ikusten, Hugo, Balzac eta E. Sue-k ongi agertu izan duten bezala. Hiru urte lehenago, 1832-an izurriteak 44 000 biktima egin ditu ... Pariseko sartaldean, berriz, modako auzo berriak ari dira sortzen: François 1er, La Madeleine, St Georges e. a. Gasezko argiari esker auzo horietan giro handia ari delarik gauaz sortzen.

Louis Philippe (Louis XVIII eta Charles X-ek ez bezala) hasi baita Pariseko itxura aldatu nahiz: Concorde-eko plaza edertzen du, adibidez, eta Victor Hugo-k modan ezarri zituen Notre Dame bezalako oroitarriak berritzen. Napoleon III. ak (1852 eta 1860 artean) du, ordea, Haussmann, Alphand eta Belgrand-ekin Pariseko itxura ainitz aldatuko.

Haussmann-en (1809-1884) ospea handia izanen da eraberritze premiatsuak ekarriko baititu, Pariseko erdia, harrizko bizileku handi eta berriek inguratzen dituzten ibilbide zabal eta zuzenez zilatuz; Île de la Cité deseginez; gelto-kiak eraikiz; ura helraraziz; parkeak (Boulogne, Vincennes), baratzeak eta squareak sortuz.

Geroztik Parisek ez dauka itxura berdina, 1860 eta gero, pobreak Haussmann-ek ekarri berrikuntzek hunkitzen ez zituzten hiri-inguruetan metatu ziren erdia debekatu zitzaielako. Segregazio horren ondorioetarik nabariena 1871-eko *La Commune* izanen delarik...

### III. 2. Oroitarriak

Anton Abbadiak arkitekturarendako ukanen duen interesa beti handia izan da; funtsean, hor lekuko, 1835a baino askoz geroago Hendaian eginarazten duen neo-ertaro fantastiko batetik aterara den gaztelu nabar ikaragarria...

Hogeitabost urteko gizon gazteari bidaian kurutzatzen dituen eliza, katedrala eta bixtan da gazteluak beti zaizkio interes handikoak. Gotikoa delarik gehienik gustatzen zaion garaia eta estiloa;

Abadia zaharrak xehetasun guztiekin deskribazen ditu, gelen eta leihoen zabaltasunak, goratasunak e. a. emanez, Irlandako Sweethrart eta Muckcross-ekoendako egiten duen bezala:

*“L’ abbaye de Sweethrart près (de) Dumfries est ruinée. Les ogives y ont force moulures, des mullions et cusps. (...) Dans un point une fenêtre en ogive est encadrée par côté! (...) Tout ceci tombe en ruines.”* (op.cit., 89)

*“Et l’on passe par la porte dans le cloître D, entourant une cour qui a au milieu un bel if de 1m. de diamètre à sa base (et) n’ayant les branches qu’à partir de 3 m. de hauteur. Ces branches s’élèvent au-dessus du cloître et obscurcissent toute la cour. Sur les deux côtés il y a 5 arches en voûtes pleines, style Saxon. Les deux autres côtés ont les 6 voûtes ogives plus hautes que les autres. (...) Le carré de la cour a 8m. 5 de côté: le cloître 2m. 5 de largeur. La hauteur n’excède guère 2m. 7.”* (op.cit., 73)

Arkitekturaren aldetik zehaztasun berdina Kilkenny-ko katedrala gotikoarentzat:

*“On y monte par un vieil escalier en pierre, d’où l’on entre dans un cimetière muré qui entoure l’édifice. Le côté du Nord a une galerie couverte à colonnes doriques d’un très mauvais effet & servant à communiquer avec une belle habitation du dean. De ce côté la porte offre une ogive basse, large et surmontant un plein cintre vieux Normand d’un effet admirable.”* (op.cit., 70)

Interesantea ere ikustea, Kilkenny-ko katedralaren aitzinean den Anton gazteak gogoan daukala jada egun batez eraikiko duen gaztelua<sup>10</sup>:

*“J’ai vu ici ce qui m’a tant plu à la cathédrale de Kilkenny, un édifice entouré d’une cour murée et élevée au-dessus du terrain qui l’avoisine. Je ferais pour moi quelque chose de ce genre: moi je conserverais le pont-levis qui même pourrait être incliné en bas & en dehors. Le mur d’enceinte aurait des meurtrières ou plutôt peut-être des créneaux.”* (op.cit., 95)

Ertaroarendako Anton Abbadiak sendi duen tiran bere garaiaren oihartzuna ikus deza-kegu.

Abbadiaren baitan diren oihartzun horiek ainitz zor diete Walter Scott-en *Quentin Durward* (1823) *Ivanhoé* (1819), *Robin Hood* eta *The fair Maiden of Perth* (1828) eleberri historikoetan agertzen den Ertaroari; zor dien bezala gero Victor Hugo-k 1831ean, Scott imitatuz, idatziko duen *Notre Dame de Paris* -(r)i<sup>11</sup>.

10. Jadanik badakike nontsu eraikiko duen gaztelu hori hilabete batzueko geroago itsas-bazterrean dabilalarik hauxe idazten baitu: *“Du point où je voudrais bâtir j’ai relevé Haisabie au NNO, Fontarabie ONO, Larhune SSE et (le soleil) ESE à 8h.”* (op.cit., 119).

11. Ikus in op.cit. 105 or.

Karnetari esker badakigu 1835 eko Abbadiarentzat Scott<sup>12</sup> dela (Byron-ekin) urruneko bidaia batean eraman lezakeen autorea. Bi autore horien izenak agertzen baitira Jacques Prévert poetak estimatuko zukeen inbentario moduko tresna teknikoek zerrenda luze batean:

*“Pour un grand voyage*

*(...)*

*lunette pour les occultations*

*cercle pour les distances*

*gr(ande) boussole de déclinaison*

*(...)*

*marteau de minéralogie*

*boîte à chimie*

*grandes feuilles de papier pour cartes réglées de même grandeur in 4<sup>o</sup> dans une reliure*

*mobile à dessiner*

*un 2e chronomètre*

*nautical almanach*

*riddle's navigation*

Byron, W. Scott<sup>13</sup>

*Un rapporteur à vernier.”* (op.cit., 106)

Ulertzekoa da garai erromantikokoan aberatsek Ertaroroko arkitektura gotikoen imitatzeko zuten furia, ondoko lerroetan ikusiko dugun bezala.

Ohar ttipi bat: Abbadiak ezartzen duen titulua, *Maison gothique*, “neo-gothique” irakurri behar da bixtan dena ...

*“Maison gothique*

*Mac Dowan qui me donnait tous ces détails est un homme fort instruit, quoique par état entrepreneur de bâtiments. J'ai vu la maison qu'il bâtit pour M. Wellwood Maxwell d'après les dessins de Rickman. (...) A l'entrée principale est une tour carrée avec porte en ogive, basse & flanquée de 2 fenêtres hautes, étroites & en trèfle. Au 1er sont trois fenêtres du même genre puis des machicoulis peu avancés et des créneaux. (...) Les pierres sont unies par une fine couche de mortier avec du mastic de vitrier pour en garnir les joints et la surface. (...) De l'autre côté où l'on a employé comme moellon de la pierre bleue, le mortier a été mêlé de cendres de forgeron et de terre bleue d'Espey. Cet artifice donne tout de suite un air d'antiquité à un mur. (...)”* (op.cit., 90)

Gotikoa da, segur, gehienik Abbadia inspiratzen duen estiloa, baina karneta irakurriz ikusten dugu edozein gaztelu, eliza edo etxe deskribatzen dituela non eta interes zerbait

---

12. Zergatik Anton Abbadiak horrelako erakarmendua senditzen ote du Scott-en eleberriendako? Germaine Robert-en lerro hauk argitasun zerbait ekar diezagukete: “(...) jamais encore la reconstitution de l'histoire n'avait présenté les caractères qu'elle offre dans les romans de Scott. Jusqu'alors, les auteurs de romans “historiques” entreprenaient de plonger leurs lecteurs dans le passé en créant l'illusion d'une abolition du temps, en évitant soigneusement toute allusion au décalage temporel. Scott au contraire s'adresse à un public du XIXe siècle qu'il prend à parti et auquel il explique comment vivaient ses ancêtres du XIIe siècle ou ses grands parents d'il y a soixante ans; son dessein est essentiellement d'ordre didactique, d'où la longueur des descriptions, leurs précisions, leur caractère technique. Objets et décors n'interviennent plus seulement dans leurs rapports avec l'intrigue, mais comme éléments essentiels d'une reconstitution, et les interventions de l'auteur prennent l'allure d'intrusions du présent dans le passé.” (in *Encyclopedia Universalis*).

13. Nik dut azpimarratzen.

atxematen dien eta askotan marrazkitzen dituela hobekiago oroitzeko gisan, lau irudiz apaindua agertzen zaigun Mr Edward Bowles-en etxea bezala:

*“J’ai vu aujourd’hui (dimanche) 21 juin, la maison de Mr Edward Bowles Fripp nommée Burfield Lodge et qui était l’unique but de mon voyage à Bristol. (...)*

*Foyer en L surmonté d’une fenêtre un peu décorée à jour ayant (caché derrière un rideau de soie rose) un orgue singulièrement doux. Le plafond plat à reliefs soi-disant gothiques en plâtre. (...)* (op.cit., 112)

Bizilekuak beren apaindura guztiekin deskribatzen ditu: erridauen eta paretan kolore, muebleen estilo e. a. leku handia atxikiz beti liburutegientzat:

*“La bibliothèque occupe un des angles (ou un des côtés) du château. Les fenêtres sont dans le genre gothique décoré; les autres fenêtres du château sont dans le style Anglais primitif, entremêlé de croisées carrées. Les livres sont encadrés dans des tablettes qui finissent par des arches en pointe. Le fond orné de portes à panneaux contient moult tiroirs à gravures cartes et curieux morceaux de pierres et cristaux de pays lointains. Un beau foyer des tapis, des tables de toute grandeur et hauteur, de grandes vieilles chaises couvertes de cuir, des cartes roulées sur les murs sous des portraits ou des armes voilà l’ameublement.”* (op.cit., 108)

Arkitektura-zatien deskribapenek leku ainitz hartzen badute ere, izadia agertzen da noiztenka. Ondoko lerroetan ikus dezagun ea zer negurritan suma dezakegun haren presentzia.

### III. 3. Izadia

Izadi basa ez gaztelurik, ez parkerik eta ez pentzerik ez duen paisaia izanen da, erran nahi da gizakiak hunkitua ez duen eremua:

*“Le paysage toujours beau devenait moins sauvage à chaque bordée. Les collines perdaient leurs dos neigeux et leurs formes devenaient plus citadines en s’embellissant de châteaux, de parcs, et de prairies.”* (op.cit., 83)

Irlandako Dinis eta Turk aintziren inguruak bezala.

Pasan, ondoko ohar prosaikoak erakustera ematen digu Abbadia ez dela errexxi euriarren “malenkonía” erromantikoan erortzen:

*“Le lac supérieur est beau & sauvage mais n’a rien de bien attrayant quand on le visite avec des torrents de pluie”* (op.cit., 73)

Eta ere Walter Scott-en erreferentzia beti inportantea dela harentzat: *“Je préfère cette vue à tout le reste: c’était l’avis de Walter Scott qui m’a-t-on dit, a vu ces lacs.”* (op.cit. 73)

Gogoeta guti Abbadiarengandik paisaia basaren aitzinean, halere, Chateaubriand-en azentuak dituen poema ttipi liriko bat garaian modan ziren klitxe guztiekin idatzia:

*“Sombre Océan du haut de tes falaises  
que j’aime à voir la barque du pêcheur  
(...)  
Sombre Océan j’aime tes cris sauvages  
mes jours sont près de tes flots amers.”* (op. cit?, 131)

Nahiz han hemenka badiren airean gora dabiltzan gogoeta lirikoegiak ez dira paisaia basei lotuak. Abbadiak lurra bere aztalpean senditu behar du eta erromantikoen negarrak ez

zaizkio sobera erreusitzen eta bera hasten delarik imitatzen konformismo huts batean erortzen da:

*“J'ai été, il y a une minute peut-être dans un de ces grands essors et tandis que ma plume en constate l'existence, elle en arrête le vol, parfois brillant mais presque toujours sans conscience de lui-même comme le sommeil du magnétisé, comme ce rêve où l'âme prévoit, ordonne et combat dans le passé comme dans l'avenir, sans savoir s'arrêter un instant pour constater en hauts gestes (...)”* (op.cit. 111)

*“Découragé dans mes plans, mon avenir triste, incertain & coupé (...). Aujourd'hui peut-être par orgueil peut-être par caprice & pourquoi pas par raison je parlerai un peu plus de moi: je mêlerai mes propres impressions à celles du dehors, je sémerai d'amour propre mes réminiscences de voyage.”* (op.cit., 102)

Izadi basaren presentzia gutti sumatzen baldin bada, gizonak landua duenarenari toki aparta atxikitzen dio Anton Abbadiak. Baratzeek, parkeek, harrizko arkitekturak edertzen dituzte; baratzeak eta parkeak berak, bizileku, abadia ala gazteluak apainduz, arkitektura moduan eraikiak izan dira aspalditik, ikustekorik besterik ez europear kolonizatzaileei (eta bereziki anglo-saxonei) hain gustatuko zaizkien oriente eta oriente muturreko baratzeak (Persia, Arabia, China, Japonia.).

Anton Abbadiarentzat, britaniar aberats guztientzat bezala, ez daiteke imajina gaztelurik parke eta baratzerik gabe. Badakigu gogoan duela beti egun batez eraikiko duen gaztelua, hona hemen Dublinen dabilalarik nola Urruñako Bordaberriko parkeaz gogoratzen den:

*“J'ai vu Penrhyn Castle au N. E. de Bangor. La position de son parc me rappelle singulièrement celle de Bordaberri. On y entre du versant de Bangor par une porte dans le gothique primitif peu frappante. Les allées comme dans tous les parcs serpentent mais à détours longs et légers, évitant tout angle brusque. Comme à Anglesex & Eaton Hall ces allées sont bordées de pelouse et elles sont séparées des bois par des barrières de fer ce qui est fort léger & durable mais à mon avis un peu maniéré et citadin.*

*Les arbres sont un peu jeunes: ils consistent pour la plupart en chênes, mélèzes, sapins, sapinettes, houx superbes pour la grosseur et l'écartement pittoresque des branches, cèdres en petit nombre s'il y en a, arbutus, lauriers, cyprès et ajoncs en grosses touffes, qui font un bel effet. Une espèce d'allée de sapins d'Ecosse qui traverse les plantations de chêne fait un effet superbe. Les allées ont environ 3 m de large. L'une d'elle descend vers la mer dont le parc est séparé par un mur fort bêtement à mon avis, et aboutit à une barrière qui donne entrée dans une presqu'île terminée (sic) par une petite maison. Cette idée très bonne est gâtée par l'aspect urbain de cette maison et par les murs qui entourent la presqu'île. J'aurais mieux aimé une hutte de pêcheur bien jolie et propre, des rochers et une mer qui vient mourir en battant la grève. (...) En parcourant le parc on n'a pas toujours en vue le château qui est développé d'arbres excepté du côté du sud où se trouve une assez grande prairie mais sans aucun sentier pour la parcourir.”* (op.cit., 65/66)

Salbuespen batzu kenduta, karnetean agertzen den izadia Abbadiak kontrolatu nahi du, neurtu.

Izadia arkitektura bilakatzen da edo topografia-leku. Kuantifikatzen ahal den elementua. Esperientzien egiteko eremua ere, Euskalherriko kosta eta Audaux-ko inguruak diren bezala. Hona hemen Ziburutik Urruñaraino egin duen lasterraren berri:

*“Course de Siboure au Socoa et à Bordaberri à 8h 8m la falaise était haute et offrait un roc blanc tendre et feuilleté incliné vers la mer qui est parallèle à ma route et haut de*

*15 m à 20 m. Le terrain est une pâture communale petites touffes d'herbes épaisses maigres et salines. Le sentier irrégulier en hauteur (...). Les champs à environ 300 m plus ou moins du rivage.”* (op.cit. p. 130)

\* \* \*

Karriketan gauaz ongi ikustea maite duen bezala, aitzinamendu guztiei kasu handiena egiten dien bezala, arrazoiaren argiak beharrezkoak zaizkio, zientzia-gizona baita lehenik.

Karneta bera ez da batere iraganaren atxikitzeko bakarrik egina baizik eta geroari buruz: hor gorde dituen berriei esker eta idazteak berak galdegiten duen diziplinagatik, berri horiek, diziplina hori biharko egunean baliatuko baitzaizkio Etiopian...

Ikasi behar baitu han nola beztitu behar den, zer jan behar den, eritasunen lanjerretarik nola bere burua zaindu, astronomiako tresnak nola modu errexenean eta arinenean ereman, eta, bixtan dena, nola bidaia-karnet bat atxiki, lekukoen ohidura eta hizkuntzei buruzko oharrrak atsulutuki behar baitira idatzi:

*“Je l’ai dit à Burnes, je me le suis promis avant de quitter la France, je veux me préparer à tenir un autre journal dans ces lieux où il n’y a ni guides imprimés, ni autorités vivantes qu’on puisse consulter, où moi seul je dois tout noter.”* (op.cit., 81)

Ez baita “herri birjin”-etara apailamendurik egin gabe joaten:

*“Voyager en pays vierge est suivant (Burnes) comme de marcher sur la glace. Souvent elle est interrompue, souvent trop faible, ou bien celle qui est devant nous ne nous paraît pas assez ferme on s’y aventure, la glace s’enfonce ou tremble: enfin on a passé. D’autres n’auront plus beaucoup de mérite à suivre nos traces, ils savent qu’ils ne se perdront pas.”* (op.cit., 52)